

5/2016 UDALEKO OSOKO BILKURA

2016KO EKAINAREN 27AN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)
Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)
Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)
Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)
Kepa De la Iglesia Sánchez (EAJ taldea)
Iñaki Merino Castro (EAJ taldea)

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Jon Burgaña Agoües

Anoetako udaletxean, 2016ko ekainaren 27an arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen Lehendakaritzapean, eta neu Jon Burgaña Agoües behin-behineko Idazkari lanetan aritu naiz.

Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak ez dute ezin etorria adierazi.

1.- 2016KO MAIATZAREN 30EKO UDAL PLENOAREN BILKURAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2016ko maiatzaren 30eko udal plenoaren bilkuraren akta irakurri eta aho batez onartua izan da.

2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2016KO MAIATZAREN 17TIK EKAINREN 15A BITARTE, BIAK BARNE.

2016eko maiatzaren 17tik ekainaren 15a bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, udalbatzarkideak jakinaren gainean geratuz.

3.- ANOETAKO BILDU TALDEAK AURKEZTURIKO MOZIOA: “ANIZTASUNA ETA IDENTITATE SEXUALEN ALDEKO ADIERAZPENA”.

EH Bildu talde politikoko zinegotzia den Josune Eizmendi Manterolak irakurri du eta aho batez ondorengo mozioa onartzen da:

“ANIZTASUN ETA IDENTITATE SEXUALEN ALDEKO ADIERAZPENA.- Ekainaren 28an mundu osoko kaleak, Euskal Herrikoak ere bai, kolorez eta aldarrikapenez jantziko dira LGTBI kolektiboaren hamarkadatarako borroka nabarmentzeko. 2016. Urtean 47 urte beteko dira Stonewalleko (New York) matxinadatik. Egun hau askatasun sexualaren mugimenduaren bitan berezia da oso, erakunde politiko, polizial eta erlijiosoek lesbianen, gayen, bisexualen, trans eta intersexualen aurka ezarritako errepresioaren kontra egiteko mugarri izan baitzen.

Orduko mobilizazioek sexu askatasunaren aldeko antolakuntza bultzatu eta lanerako indarra eman bazuten ere, 47 urte geroago diskriminazio egoerak ez dira amaitu. Are gehiago, zenbait kasutan bestelako diskriminazio egoerekin batu dira eta baztertze egoera larrietan utzi ditu lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualak. Kapitalismoak eragiten dituen diskriminazioei beraz, eredu matxista eta patriarkalaren bazterketak gehitu zaizkie, pertsona guztien, eta bereziki pertsona LGTBIn ongizatea kinka larrian jarritz.

Besteak beste, honelako kasuak bizi ditugu egun Euskal Herrian; inmigrante ez heterosexuak; pobrezian bizi diren emakume lesbianak; beltzak eta transexualak direnak; familia nuklearrean oinarritutako bizi ereduarekin bat egiten ez duten pertsonak; generorik gabeko identitateak dituztenak; etab. Arrazoi ezberdinengatik dira diskriminatuak pertsona hauek: arrazoi sozioekonomikoengatik eta baita genero arrazoiengatik ere.

Izan ere, Hego euskal Herrian oraindik ere homofobia, lesbofobia eta transfobiaren erasoak egunerokoak dira: kaleko eraso fisiko zein ahozkoak, euskaltzaindiaren generoaren arabera izenean katalogazioa, familia eredu bakarraren inposizioa eskubideak bermatzeko, liburu eta eduki multimedia sexista, etab.

Egoera internazionalari so eginda, gero eta herrialde gehiago dira sexu askatasunaren aurka mota ezberdinetako legediak onartu dituztenak, hau giza eskubideen kontrakoa bada ere.

Azkeneko homofobia erasorik bortitzena pasa den igandean bizi izan genuen Orlandon. Erasotzaile bakarra izan bada ere, gizarte eredu oso baten arazoa da honako kasua, homofobia erasoak esparru guztietan bizi bait ditugu. Izan ere, Orlandon ia 50 hildako izan dira, baina nazioartean egunerokoan bizi ditugu eraso homofoboak; gizarteko esparru ezberdinetatik zein legegialdi kriminalizatzaileetatik.

Horrexegatik, elkartasuna ardatz izango duen kontzientzia aldarrikatzen dugu, jarrerak aldarazi eta LGBT kolektiboarekiko aurreiritziak, fobiak eta gorrotoak desagerraraziko dituen, alor guztietan ezinbestekoak diren lege eta gizarte aldaketak eginda: hezkuntzan, osasungintzan, komunikabideetan edota herritar askatasunetan. Horretarako ezinbestekoa izango da ahalduntze politikak bultzatzea gizarteko sektore ezberdinetan.

Guzti honengatik, politika instituzionalak pertsona lesbianen, gayen, transexualen, bisexualen eta intersexualen eskubide politiko, ideologiko eta zibil oro babesteko norabidean joan behar dira, oinarritzko askatasun printzipioaren baitan.

Era berean, hauen aurkako eraso, jazarpen edota errepresio oro gaitzetsi eta salatzen jarri behar du, eta horrelakoak errepika ez daitezkeen, bere eskura dituen baliabide guztiak erabili

beharko lituzke, prebentziorako, detekziorako, asistentziarako eta laguntzarako protokolo baten lanketa egiteko.

Pertsona askeek osatutako herri askea eraikitze bidean, Euskal Herriko herri eta hiri desberdinetan antolatutako mobilizazioekin bat egitera deitzen du anoetako Udalak.

4.- ANOETAKO BILDU TALDEAK AURKEZTURIKO MOZIOA: “EKAINAK 2, PERTSONA ERREFUXIATUEN EGUNA ADIERAZPEN INSTITUZIONALA”.

EH Bildu talde politikoko zinegotzia den Bakarne Olano Manzanok irakurri du eta aho batez ondorengo mozioa onartzen da:

“EKAINAK 20, PERTSONA ERREFUXIATUEN EGUNA ADIERAZPEN INSTITUZIONALA”.
2001. urtean Nazio Batuen Batzar Orokorrak ekainaren 20a pertsona errefuxiatuen egun bezala izendatu zuen. Nahiz eta urtero kontuan hartu beharreko data den, uste dugu gaur egungo egoerak erreflexio sakonago bat egitea behartzen gaituela.
Munduan 60 milioi errefuxiatu daude, gehienak Ekialde Hurbilean eta Afrika beltzean dute jatorria, baina mundu mailako drama humanitarioa da. Afganistan, Irak, Siria, Kurdistan, Sahara, Tibet... Herrialde eta eremu askotan dute jatorria errefuxiatuek. Egoera hauek guztiek komunean dutena, ordea, gatazka politiko-militar eta sozioekonomikoek eragindako mugimendu migratorioak dira. Inor ez da borondatez bere herrialdetik irteten.
Pertsona hauen egoera ez da gauetik goizera sortu. Europak eta mundu mailako potentzia handienak hamarkadetan hartutako erabakien ondorioa da. Europako, esaterako, nazioarteko legeria bihurritu eta giza eskubideen babes bultzatuko lukeen jarrera humanistari eutsi beharrean, neurri polizial eta militarrek aktibatu ditu azken hilabeteetan.
Pertsona errefuxiatuen eskubideak urratzen ari dira etengabe Europan. Gezur handi baten aurrean gaude, Europa bi aurpegirekin jokutzen ari delako, Errefuxiatuen eskubideen babesle gisa agertu nahi du baina, aldi berean, errealitate ezkutatu nahian dabil. Milaka gizon, emakume eta haur noraezean ari dira, estatu batetik bestera espulsatuak, internamendu zentroetan sartuak, bortxatuak, desagertaraziak, jipoituak, lapurtuak eta jazariak... Eta hori guztia Europako estatuen babesarekin.
Arduragabekeria eta giza eskubideen urraketa horren aurrean, herritarrok, bakoitza bere eragin esparrutik, norberak eskura duen aukeraz baliatuta, errefuxiatuak diren pertsonen ongi etorria eman beharrean gaude, aitortza, erreparazioa eta laguntza eskainiz.
Nazioarteko harremanen bestelako antolaketa aldarrikatzea ezinbestekoa da, herrien eta herritarren eskubideak aintzat hartuko dituen bestelako mundua. Bestalde, belaunaldi belaunaldi gerra eta erbestean ezagutu duen herri baten kideak garen heinean, elkartasuna gure balore eskalaren goikaldean kokatzen dugu.
Anoetako Udaltzak, Espainiar Gobernu eta Europar Batasunaren jarrerak salatzeaz gain, pertsona migratzaile eta errefuxiatuen etorrerak oztapatzeari utzi eta euren etorrerak azkartu ditzaten eskatzen du.
Anoetako Udaltzaren Osoko Bilkurak ekainaren 20an ospatzen den pertsona errefuxiatuen egunarekin bat egiten du eta eragileek gure herrian antolatu dituzten ekimenekiko atxikimendua adierazten du”.

5.- ANOETAKO BILDU TALDEAK AURKEZTURIKO MOZIOA: “MANDELA ARAUAK”.

EH Bildu talde politikoko zinegotzia den Aratz Luisa Urkolak irakurri du eta aho batez ondorengo mozioa onartzen da:

“MANDELA ARAUAK.- 2015eko abenduaren 17an Presoak Tratatze Oinarritzko Arauak onetsi zituen, Nazio Batuetako Asanblada Orokorrak, izen sinboliko bat emanaz: Mandela Arauak. Horrela, arautegi hau bultzatu duten Estatuak omenaldia egin nahi diote 27 urtez kartzelaratutako preso politikoari eta ostean Hegoafrikako Presidente izan zen Nelson Mandelari, giza eskubideen alde, berdintasuna, demokrazia eta bakearen kulturaren aldeko bere ondarea goraiatuz.

Mandela Arauak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren printzipioak aintzat hartzen ditu eta kartzela politika ezartzeko orduan, presoek giza eskubideak babesteko norabidean, eragin eta balio handia dute. Azpimarratzekoa da Mandela Arauek, Tortura eta bestelako tratu edo zigor anker, gizagabe edo iraingarrien Hitzarmena hartzen dutela oinarritzat.

Izaera unibertsala eta indar inperatibo eta lotesle izatea helburua duten 122 arau hauek, ondoko oinarritzko printzipioa ezartzen dute: “preso guztiak, euren duintasuna eta gizaki bezala duten berezko balioetatik berezi duten tratamendua jasako dute”. Horren haritik, “kartzela erregimena bideratua dago kartzela bizitza eta askatasuneko bizitzaren arteko tartea minimora gutxitzea” adierazten du, horretarako kartzelako baldintzak duinak izan daitezzen katalogo bat agertuz.

Mandela Arauek, besteak beste, presoek osasun tratamendu duin bat jasotzeko eskubidea eta familiarekin harremana mantentzeko eskubidea ere aldarrikatzen dute. Zehazki 59. Garren arauak zera adierazten du: “posible den neurrian, presoak bere etxetik edo bergizarteratze lekutik gertu egongo dira”. NNBBen arau hauen 44garrenak agintzen duenez, isolamendua, “soilik salbuespeneko kasuetan ezarriko da, azken errekurtsio gisa, ahalik eta denbora gutxienez eta errebisio independente baten menpe”.

Euskal presoek esperientzian ez da horrela suertatzen: isolamendua sistematikoa bihurtzen da, zigor ohiko eta arrunta da, aplikazio arbitrarioa duena. Isolamendua presoarengan ondorio psikiko ikaragarriak sortzen ditu. Azken egun hauetan horren testigantza zuzena jasotzen ari gara: muturreko isolamendu kasuen zerrenda luzea ezagutzen dugu, Arantza Zulueta, Harriet Garcia Gaztelu, Fernando Garcia Jodra, Sebas Lasa, Iker Lima, Angel Lopez Anta, Aitzol Maurtua, Iker Olabarrieta, Patxi Ruiz, Nerea Bengoa, Irantzu Gallastegi, Gurutz Agirresarobe, Iker Arakama, Rufino Arriaga, Asier Arzallus, Juan M^o Etxebarri, Garikoitz Etxeberria, Jesus Goikoetxea, Roberto Lebrero, Iñigo Vallejo... zerrenda luzea da. Beste aldetik, ezaguna da duela aste batzuk Fresneseko espetxean isolamenduetatik piztutako gatazka eta tentsioa, horren ondorioz gose greba bateko protesta eragin duena.

Nazio Batuek gonbidapen bat luzatzen dute: Nelson Mandelaren Nazioarteko Eguna, uztailek 18ro ospatzen dena, Presoek giza eskubideen aldeko Mandela Eguna izan dadin, gartzelaratze baldintza duinak bultzatzeko eta presoek ere gizartearen parte direla agerian uzteko.

Hori dela eta, Udal honek ondokoa erabakitzen du:

- *Udal honek bat egiten du Nazio Batuek onetsitako Presoak Tratatze Oinarrizko Mandela Arauekin.*
- *Udal honek, Euskal Presoei Mandela Arauak aplikatu dakizkien eskatzen du, besteak beste, gaixo dauden presoek tratatu duin bat jasotzeko eskubidea eta familiarekin harremana mantentzeko eskubidearen haritik, dispersioarekin amaituz.*
- *Udal honek, Mandela Arauak oinarritzat harturik, zigor ohiko eta arrunt bezala, muturreko isolamenduaren erabilera sistematikoa arbuiatzen du. Isolamenduak presoarengan ondorio psikiko ikaragarriak sortzen dituela kontutan izanik, egoera hau pairatzen duten presoekin elkartasuna adierazten du udal honek.*
- *Nazio Batuen gomendioa jarraituz, uztailaren 18a Presoen eskubideen aldeko Mandela Eguna ospakizuna aintzat hartzen dugu, kartzelaratzeko baldintza arbitrarioen kontra agertuz eta presoak gizartearen parte ere badirela aldarrikatuz”.*

6.- LEKU-EDER ETXEAN LEGEZKO OKUPATZAILE DIRENEN OSTATU EMATEA EBAZTEKO ETXEBIZITZEN LAAPENA, RA.C ORUBEAN.

Aurrekariak

1.- 14. Sektoreko Birparzelazio Proiektuaren testu bategin “Lasarbe” izenekoa, 2011ko urriaren 27an behin betikoz onartuta izan zen. Testu honek Leku Eder etxeko jabeen, bestalde indarrean zegoen planeamenduak ordenazioz kanpo aitortzen zuen etxea, beren etxebizitzaren legezko okupatzaile izaera arrezagutzen zien, eta ostatu emateko eskubidea bermatzen zien, RA.B5 emaitzako orubeari 2 etxebizitza jakinen entregatzearen karga ezarri.

2.- Lehen emaitzako orubeen garapen azkar baten ondoren, Sektoreko eraikigintza geratu egin da eta epe ertain eta luzean berriro berrindartuko denaren aurreikuspen gutxirekin. Gainera, Sektorea 2 gauzatze fasetan antolatu zen eta Leku Eder etxearen eraispena 2. fasean erantsi zen. Lehen fasetik 2 orube geratzen dira eraikitzean (RA.A3. y RA.A5.), ez da ez obra lizentziarik eskatu, eta egindako eraikin batean (RA.B4.) oraindik etxebizitzaren eskaintza dago behinik behin.

3.- Azaldutako egoera honen eragina jasaten dutenak Leku Eder etxeko Jose Casimiro Sales Afonso jauna (2. solairuko etxebizitza) eta Begoña Corón Domínguez anderea (3. solairuko etxebizitza) dira. 2 pertsona hauek Udalarari heuren etxebizitzak ordenazioz kanpo aitortu izanagatik ondorioztatutako egoerarentzat aurretiazko konponbide bat erreklamatzeko diote, urteak pasa ahala areagotzen ari den egoera gainera.

4.- Etxe honetako auzokideen inguruan sortutako egoera konpontzeko xedez, eta ekimen pribatua gauzatzen ez dela, 2 etxebizitza erreserbatu ziren RA.C. emaitzako orubean Araubide Orokorreko Babes Ofizialeko etxebizitzaren salmenta sustatzea xede zuen

kontratuaren esleipenaren prozesuan (egungo Lasarbe kalea 1), “Construcciones Aburuza, S.A.” enpresak transmititu zituenak zehazki Maria Valentina Montero Vilar notario andereak baimendutako eskrituran, 2014ko abenduraren 19an.

Aipatu 2 etxebiditzen balioa, beren eranskinekin batera, berrehun ta laurogeita hamazazpi mila ta hogeita hamazazpi euro eta hirurogeita hamalau zentimotan geratu zen finkatuta (297.037,74 €), 2010eko azaroaren 3ko Aginduak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzen gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa, ezarritakoarekin bat eginez.

5.- Udala 14. Sektoreko Birparzelaio Proiektuaren Aldaketa Puntual bat izapidetzen ari da, Leku Eder etxeko 2. eta 3. solairuko etxebizitzetako bizilagunei ostatu emateko beharra bideratzeko. Aldaketa Puntual honek bi helburu ditu: batetik, 14. Sektorean egin gabe dauden ostatu emate eskubideak gauzatzea aurreratzea, Udalak jaso zituen R.A.C. emaitzazko orubeko babeseko 2 etxebizitzen kontura; eta bestetik, Birparzelazio Proiektuak jasotako kalteordainen Udalaren subrogazioa, hiriztatze karga bezala arrezagutzen diena ostatu hartzaileei, etxebizitza, eranskin eta behar baino lehenago eragindako gastuen muga arte.

Legezko Oinarriak

EAEko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, bere bigarren xedapen gehigarrian ostatu ematearen eskubideaz eraentzen du, eta 105/2008 Dekretuaren 23. artikulua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa, eskubide horren aradia garatzen du.

Eta kontutan hartuta EAEko 3/2015 Legean, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena, etxebizitza duin bat izateko eskubidea jasota dagoela, botere publikoek horretarako sustatu behar dituzten neurrien bitartez egikaritzen dena.

Eta kontutan hartuta, ordea, aurrez aipatu eskubide hori, Anoetako Udalaren kasu zehatzean, honek jasoko duen bermearen baitan egon behar dela, bestalde, Birparzelazio Proiektuan agertutako kalteordainaren kontura doazen babeseko etxebizitzen prezioarekin bat datorren bermea hain zuzen ere.

Partaideek aho batez erabakitzen dute:

Lehena: 14. Sektoreko, Lasarbe izenekoan, Birparzelazio Proiektuan arrezagututa dauden ostatu emate eskubidearen titular gisa jarraian aipatzen diren Lasarbe kaleko bi etxebizitzak besterentzea aipatzen diren pertsoneri.

- 1.- 1zenbakia duen eraikineko 3. solairuko C letradun etxebizitza, ostatuan ematea BEGOÑA CORON DOMIENGUEZ andereari.
- 2.- 1zenbakia duen eraikineko 4. solairuko A letradun etxebizitza, ostatuan ematea JOSE CASIMIRO SALES AFONSO jaunari.

Bigarrena: Aipatu bi babeseko etxebizitzaren besterentzearen aurretik edo honekin batera, Birparzelazio Proiektuaren Aldaketa Puntualean jasoko den bermea dagokion errejistroko inskripzioa egitea, Udalak ere gerora bermea izan dezan dagozkion etxebizitzaren prezioa jaso dezan.

Hirugarrena: Aurretik aipatu akordio guztiak betetze aldera Alkate Lehendakaria ahalmenu behar diren izapide eta eragiketa juridikoak burutzeko,

7.- GALDE-ERREGUAK

Galde-erregu garaian, EAJ talde politiko bozeramailea den Kepa de la Iglesia jaunak galdetzen du ea nola dagoen 2016 urteko Aurrekontua.

Alkate jaunak erantzuten du 2015 urteko likidazioarekin ari direla

Behin-behineko idazkariak berriz adierazten du 2016 urteko aurrekontuan partidak aldatu egin direla eta hauen txukuntze lanetan daudela.

Eta beste aztergairik ezean, Alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta hogeirenean; guzti honetaz, nik behin-behinekoo idazkariak, fede ematen dudalarik.